

Prentsa oharra

Nota de prensa



HONDARTZETAKO KABINAK ERABERRITZEA UDAKO DENBORALDIAREN ONDOREN

Donostiako Udalak Ondarreta eta Kontxako hondartzetako kabina kolektiboak eraberritzeari ekingo dio udako denboraldiaren ostean. Gobernu Batzordeak datorren asteartean onartuko ditu 750.000 euroko obrak.

Hiri Proiektuen zinegotziak, Duñike Agirrezabalaga sozialistak, adierazi duenez, "obra hauekin hezetasun eta ur filtrazioen arazoa konpondu nahi da, aldi berean sabai faltuak, hormak eta lur akaberak berrituz. Jakina, hondartzen denboraldia irailean amaitu arte itzarongo da berrikuntzei ekin ahal izateko, lau hilabete inguruko iraupenarekin".

Kontxako kabinan pasealekuaren iragazgaiztea berrituko da, beraz, egungo baldosak altxatu eta berrituko dira, egungo argizuloak kenduz. Euri-urak biltzen dituen hodiaren saturazio-arazoak eta instalazioaren barruko kondentsazioa ere konponduko dira. Kabina horien eraberritzea 490.400 eurokoa da.

Prensa oharra

Nota de prensa



Agirrezabalagak azaldu duenez, Ondarretan kabinetako dutxetako lurrenaren kondentsazioak sortzen dituen arazoak kenduko dituzte eta ura estalkitik sartzea konponduko dute. Erreforma 258.000 eurokoa da.